

ENPRESEN NETWORKING-a - SMART INDUSTRY: *Industrian EIKTak sustatzeko lankidetza*

JARDUNALDIA • ENPRESEN NETWORKING-a • DOAKOA • 2025eko martxoak 26 (8:30 – 16:35)

Iberdrola Dorrea - Euskadi Plaza, 5 -48009 Bilbo (Bizkaia)

Eusko Jaurlaritzaren **Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia** planaren esparruan, **Enpresen Networking-a - Smart Industry** kongresua kokatzen da. Erakundeen arteko lankidetza sustatzeko ekimen gisa, helburu honekin: elektronika-, informazio- eta komunikazio-teknologiak (EIKTak) prozesu produktiboetan integratzea, enpresetan **Industria Adimenduna** garatzeko apustu gisa.

Kongresuaren xedea da enpresetan **EIKT berriak** sustatzea. Hori lortuko da **sektore anitzeko topaketa** bat antolatuz, errealitate industrial berri hau ardatz izanik.

Nork parte har dezake?

a) Hainbat **Sektore industrialetan (automobilgintzan, aeronautikan, energia-sektorean, makina-erremintan, eta abarretan)** diharduten EAEko enpresek, baldin eta gaur egun dituzten enpresa-beharrei aurre egiteko EIKT-enpresen zerbitzuak behar dituztenak **Industria Adimendunaren** arloan. Hauek **EIKT berri** batzuen ezarpenean oinarrituko dira (*Gehikuntzazko fabrikazioa, Elkarlaneko robotika, Sistema ziberfisikoak, Errealitate areagotua, Ikusmen artifiziala, Errealitate birtuala, Cloud Computing, Big Data, Zibersegurtasuna, Adimen Artifiziala*).

b) **EIKT-sektorean** diharduten enpresek, baldin eta sektore bereko eta/edo hainbat industria-sektoretako beste enpresa batzuekin harremanetan jarri nahi dutenak, **Industria Adimendunaren** arloan egon daitezkeen lankidetzak zehazteko helburuarekin.

Parte hartzen duen enpresa bakoitzak **bilera-agenda pertsonalizatu** bat izango du, eta bi fase hauetan gauzatuko da:

- Parte hartzen duten enpresen eskaerak abiapuntu.
- **Bi aldeek adostutako** Matchmaking-prozesu bat.

Agenda

8:30 – 9:15 Harrera egitea eta dokumentazioa ematea

9:15 – 9:30 Ongietorria eta kongresuaren aurkezpena **Elixabete García**, Eusko Jaurlaritzako Eraldaketa Digitaleko Zuzendariaren eskutik.

9:30 – 9:45 TEIC sektorea, NEXT eraldaketa-estrategien zerbitzura, **Tomás Iriondo**, GAIako Zuzendari Nagusiaren eskutik.

9:45 – 11:00 Hausnarketa-guneak: *“Gure enpresetan Industria Adimenduna garatzearen alde”*

Enpresa industrialak “laugarren iraultza industrial” deiturikoari aurre egitean dituzten esperientziak partekatzeko guneak

- **Ioseba Alonso – 4.0 Engineering Manager (GHI SMART FURNACES)**
Labe adimendunetik fabrika autonomora: IAoT Bidea irekitzen
- **Gerardo Beruvides - CEO (Xymbot Ltd.)**
Edozein AA baino 0-100 aldiz errentagarriagoa, zure aktiboak denbora errealean lokalizatzea
- **Andrés Portela del Río –I+G+B Zuzendaria (ARATUBO – GRUPO ARANIA)**
Eraldaketa digitala altzairuaren industrian: nola berritu sektore tradizional batean 4.0 industriaren bidez

11:00 – 11:30 Etenaldia – Kafea eta Networking-a

11:30 – 13:00 Aldebiko topaketak. *Negozio-bilerak, alde aurretik ezarritako agendaren arabera*

13:05 – 14:10 Luncha – Networking-a

14:10 – 16:35 Aldebiko topaketak. *Negozio-bilerak, alde aurretik ezarritako agendaren arabera*